

AB, EA eta EAJk ekitaldi bateratua egingo dute Hazparnen Aberri Eguna ospatzeko

Adierazpen bateratu bat hitzartu dute goizean egingo den bilkuran irakurtzeko

Pantxike Agirre / Donostia

Ipar Euskal Herriko alderdi abertzaleek elkarrekin ospatuko dute aurten ere Aberri Eguna. ABk, Eak eta EAJk Hazparnen bilduko dituzte, goizean, hautetsi eta herriar abertzaleak, Udalbiltzak egin duen deiarekin bat egin. Ekitaldian irakurriko den agiria hitzartuta daukate jada hiru alderdiek.

HILAREN 23an, Hazparne izango da Ipar Euskal Herrian Aberri Egun bateratuaren kokalekua. Iaz, Donibane Garazin elkartu ziren alderdi abertzaleak, Abertzaleen Batasunak egin zien gonbitari erantzunez. Aurten, ordea, ABk, Eusko Alkartasunak eta Euzko Alderdi Jeltzaleak elkarrekin egingo dute Hazparnera joateko deia. Horretarako, agiri bat ere hitzartua dute, EUSKALDUNON EGUNKARIAK jakin duenez.

Ekitaldi bateratua goizean egingo da Herriko Etxearen aitzinean, eta aipatu hiru alderdi abertzaleetako ordezkariak hartuko dute hitza. Arratsaldean, Hazparnen bertan bilduko ditu ABk bere jarraitzaileak ekitaldi politikoan, eta Iparraldeko EAJk eta Eak bat egingo dute Hegoaldean egingo dituzten ospakizunekin.

Aberri Egun bateratua ospatzeko Udalbiltzak egin duen deia erantzun nahi izan diote ABk, Eak eta EAJk Hazparneko ekitaldia antolatuz.

Iaz Euskal Herriko Udaltaldearen Biltzarrak egin zuen deia; aurreko 20 urteetan posible izan ez ziren ekitaldi bateratuak egin ziren eguerdian Hego Euskal Herriko udaletxe gehienetan; Iparraldean, Donibane Garaziko Herriko Etxean elkartu ziren EH, EAJ, EA, ELA eta ABko ordezkariak. Euskal Herriaren nazio izaera aldarrikatzearrekin batera, Euskal Departamenduaren eskaera egin zen bertan.

Iparraldean bigarren aldia zen abertzaleek elkarrekin ospatzen zuten Aberri Eguna. Aurrekoan Kanbon bildu ziren, eta orduan ere ABk egin zien gonbita gainerako alderdi abertzaleei.

Udalbiltzaren deia alkateei

Udalbiltzako batzorde iraunkorrak joan den maiatzaren 31n egin zuen Aberri Egunean ekitaldi bateratuak ospatzeko deia. «Alai eta indartsu» ospatzeko eskatu zien herritarrei, eta Euskal



AB, EA, EAJ, EH eta ELAko ordezkariak iaz Donibane Garazin.

Herriak dituen konpromisoei aurre egiteko. Udalbiltzak egin die jada ekitaldiak antolatzeko gonbidapena alkateei, eta irakurriko den adierazpen politikoa ere presatua dute. Agiri horretan

esaten da Euskal Herria nazio gisa «irautea eta gartztea» dela Udalbiltzaren helburua, eta egiteko horretan euskal herritar guztien arteko eztabaida demokratikoari bide eman nahi diola.

Lege proposamenak aurkeztuko dituzte PSE-EEK eta PPK Legebiltzarrean

■ Eztabaida politikoa sortu asmoz eramango dituzte

Agentziak / Bilbo

PP eta PSE-EE alderdiek maiatzaren Eusko Legebiltzarrean lege proposamenak aurkezteko asmoa azaldu dute. Alderdi popularrak aurrekontuen legearen birmoldaketa eskatu du, «Legebiltzarrean eztabaida politikoa bultzatzeko». Egungo gobernuak ez du gobernatzen PPren iritziz, eta herritarrei dagozkien gaiak planteatu behar dira. PSE-EEK, aldiz, legeko eta ez-legezko proposamenak aurkeztuko ditu, «EHk Legebiltzarrean mantenduko duen jarrera argi azaldu ostean eta Ibarretxek adierazpenak entzun eta gero». Orain bi aste bi alderdiek adierazi zuten ez zutela ekimenik aurkeztuko Legebiltzarrean, Eusko Jaurlaritzaren krisi egoera ikusirik.

DESOBEDIENTZIA ETA DESMILITARIZAZIOAREN ALDE EPAIKETA MILITARREI ERANTZUN


Epe labur batean Derrigorrezko Soldadutzaren desagerpena ikusi ahal izango dugu. Idatzi honen sinatzaileok gure poztasuna agertu nahi dugu gizarteak desobedientzia eta ez-kolaborazioaren bidez hainbat urtetan luzatu den egoera tamalgarri honekin amaitu duelako.

Hala ere gure poza ez da erabatekoa. Estatu Espainolean militarrek herritarrek epaitu eta zigortzen jarraitzen dute Guda Kontseiluen bidez. Beste garai batekoa dirudien "justizi" militar partzialak amadaren bidegabetasuna salatzen duen oro auziperatzen du. Kasu honetan esparru militarretan ekintza baketsuak egin dituzten herritarrek epaituko dituzte. Koarteleko Intsumisioaren dinamikaren ondorioz ejerzitua utzi zuten eta Alkalako espetxe militarrean dauden gazteak bezala, gartzela zigor gogorra jaso dezakete pertsona hauek.

Euskal herritar gisara, militarren logikari desobedientziaz erantzuteko arrazoi ugari daudela pentsatzen dugu, modu honetan gizartearen desmilitarizazioruntz pausoak eman behar direla uste dugu. Helburu hau lortzeko egiten diren ekintzak ez lukete epaituak izan behar, are gutxiago epaitegi militar batetan.

Antimilitaristen helburu eta ekintzekin bat egiten dugu eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu arrazoi hauengaitik epaituak izan diren eta izango diren guztiei. Azkenik, herritarrei Guda Kontseiluen aurkako ekimen guztietan parte hartzeko deia egin nahi diegu.

Jose Elorrieta (ELA)	Andoni Iso (Nafarroako Gazteriaren Kontseilua)
Rafa Diez(LAB)	Leire Caridad (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua)
Santiago Bengoa(CCOO Euskadi)	Reina Ruiz(Gasteizkoak)
Maitte Aristegi(EHNE)	Unai Abarzuza(Malatxa)
Angel Abalde(ESK)	Josemi Peñas (AOC)
Arantza Urkaregi(STEE-EILAS)	Iñaki Otamendi(Kakitzat)
Joseba Permach(HB)	Fermin Vila (EUDIMako Koordinatzailea)
Nekane Alzelai(EA)	Federiko García(SOS Arrazakeria)
Joxe Iriarte "Bikila" (Zutik)	Martin Barriuso(Kalamudia)
Milagros Rubio (Batzarre)	Agurtzane Villate(Ika-ko irakasle eta marrazkilaria)
Eva Martinez(Plazandreok)	
Antonio Duplá(EHUKo Irakaslea)	Mikel Urdangarin(Abeslaria)
LourdesOñaederra	Maribel López de Luzuriaga
(EHUKo Irakaslea eta Idazlea)	(Trikitixa Kontraio Taldea)
Iban Zaldúa(EHUKo Irakaslea eta Idazlea)	Iñaki Beraetxe(Aktorea)
Jon Arretxe(EHUKo Irakaslea eta Idazlea)	Itziar Ituño(Aktorea)
Txema Matanzas(Abokatua)	Martxelo Rubio(Aktorea)
Jose Ignacio Uruñuela Najera (Abokatua)	Martin Orbe(Abadea)
Cesar Manzanos(Soziologoa)	Gerardo Markuleta (Idazlea)
Gaizka Aranguren (Kazetaria)	Patxi Uribarren(Aita Kamelita)
Lorea Perez de Albeniz(ETBko Kazetaria)	Maixux Rekalde
Itziar Gorospe (EL Mundoko Kazetaria)	
Martxelo Otamendi	
(Euskaldunon Egunkariako Zuzendaria)	
Mertxe Aizpurua(Garako Zuzendaria)	



KAKITZAT

LARUNBATA 15
BILBON: 12'30 Jardines de Albia ondoan
Konzentrazioa
DONOSTIAN:19,30 Boulebarretik manifestazioa.

EB-IUK «akordio zabalak» eskatu dizkio Ibarretxeri

■ Haatik, ez dator bat PPren «lintxamenduarekin»

Erredakzioa / Bilbo

EB-IUKo Lehendakariatzako kide Oskar Matute eta Mikel Aranek atzo prentsaurrekoan adierazi zuten, «Ibarretxeri gure sostengua eman ez genion arren, ez dugu bat egingo Eusko Jaurlaritzari jasaten ari den lintxamendu kanpainarekin». Dena den, «bere egonkortasuna bermatuko duten akordio zabalak bila daitezen exijituko dugu», eta ildo horretatik aldaketak eskatu zituzten Eusko Jaurlaritzaren «politika antisozialean».

EB-IUKo kideen irudiko, «PPren jokabideak zalaparta

sozial handiagoa sortu nahi du, eta bere xedea egungo Jaurlaritzaren desegonkortu eta ordezkatzeko da». PSE-EEri dagokionez euren bidea «argitzeko» eskatu zioten IUKo kideek, «PPk esaten duenaren segidismorik egin gabe».

Lizarra-Garaziko azken bileraz ere mintzatu ziren Matute eta Arana. Euren hitzetan, azken bilerak «fruitu emankorragorik» ez ematea «tamalgarria da». Bestalde, «horrek agerian uzten du ETaren jarduna ez dela bateagarria bake prozesu demokratiko eta aske batekin», gaineratu zuten Lehendakariatzako bi kideek.